

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Publizitateaz aparte, tailerrak egingo ditugu, jendeari diseinatzen erakusteko eta egiten dugun lana haiek ikusteko eta baloratzeko. Horrela, bezero berriak erakarriko ditugu eta gure arropa denda hazi egingo da. Hedapenaz gain, diru pixka bat irabaziko dugu eta diru horrek hala nola gure enpresan laguntza txiki bat emango digu.

Ez dago bezero eredu bateri zuzenduta baina gure bezeroak gehienbat jende gaztea izango da, gazteengana hurbiltzeko sare sozialak erabiliko ditugulako.

Baita webgune denda bat edukiko dugu ere eta bertan arropa erosi ahalko dute, hortaz gain, denda fisikoa edukiko dugu, bezero bakoitzak non erosi aukeratzeko modua eduki dezan eta erosoena iruditzen zaiena hautatzeko aukera ematen diegu.

Arreta zerbitzua egongo da ere. Telefono zenbaki bat eta email bat edukiko dugu bezeroekin harremanetan jartzeko, edozein duda edo zalantza galdetu ahal izateko.

